

Egia

Ongi etorria kaldereroei

Shandra Castillo

Larunbatean, hilak 8, kaldereroak Egiara iritsiko dira urtero bezala. Arratsaldeko 18.00etan Egiako kaleak zeharkatuko dituzte Tejerria, Karmengo Ama, Egia, Ametzagaña eta Mandaseko Dukeatik barrena. Ohiko bezala, konparsa elkarte guztietan geratuko da "bizigarri" bat hartzeko, eta ibilbidea bukatu ondoren, afari zoragarria izango dute Arrano Elkartean.

Josepok, erreginetako ba-



tek, esan digun bezala "duela 8 urte Egiako elkarteak bildu eta jendea kaldereroetan irteteko prest zegoela ikusi

genuen". Beraz, bilera batzuk egin ondoren, Egiako Arrano, Donosti-Gain eta Ur-zaleak elkarteak, eta Egiako Eskubaloi Taldea bildu ziren kaldereroetan parte hartzeko.

Aurtengo erreginak Josepo, Ganso, Agus, eta Josu Tamariz izango dira. Larunbatean, lau gizon horiek emakume bihurtuko dira, kaldereroak, beren edertasunarekin sorgintzeko. Beraz, dena prest dago larunbatean kaldereroek eta zingarek, gure auzoari urteroko bisita egiteko.

Bidebieta



Elkartasuna Galiziarekin

Joan den igandean, Herri Ametsa ikastolak, Galiziako Etxearen lankidetzarekin, "Geu ere Galiziarekin-Nos taen con Galicia" ekimena antolatu zuen. Ikastolan bertan, Euskal Herriko zein Galiziako dantzak, herri kirolak eta Txan magoaren emanaldia ikusi ahal izan ziren.

Bestalde, Zientziaren Kutxaguneko Felix Aresek, Laida Baurto kazetariak eta Galizia Etxeko ordezkari Jose Ramon Varelak hitzaldia eskaini zuten. Nabarmentzekoa da, halaber, Herri Ametsara hurbildu zirenek Galiziako ohiko produktuak, ribeiro eta alvaríño ardoak, enpanada edota olagarroa tartean, dastatu ahal izan zituzten eta ekitaldian jasotako dirua Corme herrira bideratuko dela.



Hilabeteak utzita

Hilabeteak dira argazkian ikus daitekeen autoa utzita dagoela osasun etxeko aurrealdean. Auzotarrek, zinez, eskertuko lukete autoa lehen bailehen kentzea, izan ere, gaez eta asteburuetan Bidebietan autoa uzteko leku gutxi dago.

Haizetearen ondorioak

Aste honetan zein aurrekoan, haizeteak zuhaitz ugari bota ditu Donostiako hainbat auzotan. Bidebietari dagokionez, haizeteak eliza aurrealdeko zuhaitz bat bota zuen.



Ikastaroak Kontadoreen

Otsaila bukaeratik maiatza bitartean Kontadores gaztegunean hainbat ikastaro egingo dira. Ikastarook 16 eta 30urte bitartekoentzat zuzenduta daude eta besteak beste, antzerkia, gidoigintza edota dantza jorratuko dira. Izena emateko epea otsailaren 20 arte dago zabalik. Izena emateko edo ikastaroen buruzko informazio gehiago jaso nahi duenak 943390122 telefono zenbakira hots egin besterik ez du.